



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

Lanpostua: goi mailako enplegu teknikaria

GALDERAK

LEHEN ARIKETA

Denbora, gehienez: 120 min.

- **Ez ireki esan arte.**
- **BOLALUMA URDINA EDO BELTZA besterik ez erabili.**
- **TIPEX© eta antzekoak erabil daitezke.**
- **30 galdera labur dira. Galdera guztiek berdin balio dute.**
- **Laukiz inguratutako espazioan erantzun behar duzu.**

1) Deskriba itzazu Enpleguaren Euskal Kontseiluaren zereginak.

2) Europako Enplegu Estrategiaren barruan, Lisboako Agendak kalitatea aipatzen du. Zein alderdirekin du zerikusia enpleguaren kalitateak?

3) Zein da Europako Enplegu Estrategiaren helburu nagusia?

4) Nola finantzatzen da Enplegurako Prestakuntzarako Hiruko Fundazioa?

5) Nola definitzen du Estatistika Institutu Nazionalak (INE) biztanleria aktiboaren inkesta (EPA)?

6) Zer jotzen da enplegu politika aktibotzat?

7) Zer da Europako Gizarte Funtza?

8) Zer da Hobetuz?

9) Nola definitzen ditu biztanleria aktiboaren inkestak (EPA) “pertsona aktiboak”?

10) Langileen Estatutuaren 11. artikulua “heziketa kontratuak” deritzonak arautzen ditu. Zein kontratu motaz ari da zehazki?

11) Defini ezazu “prospekzioa” zer den lan merkatuaren arloan (erref. 2008-07-30eko Agindua, 2008/166 EHAA).

12) Defini ezazu “tokiko ekonomia garapena” zer den.

13) Zer ulertzen da “malgurtasuna” edo “flexiseguridad” esaten delarik?

14) Zein ari da garatzen “Enplegurako orientazioa” Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten ildotik?

15) Defini ezazu “enplegu zentroa” kontzeptua.

16) EUSKO JAURLARITZAREN 2007-2011 ENPLEGU PLANA: helburu nagusia eta ardatz estrategikoak.

17) Zein da AUZOLAN programaren azken helburua? Zein da programa horren egitura orokorra? Zein motatakoak dira programa horren barruko proiektu guztiak gauzatzeko ekintzak?

Azken helburua:

Egitura orokorra:


Ekintza motak:

18) AUZOLAN programa arautzen duen dekretuaren arabera, zein dira “gizarte onurako enpleguak” gauza daitezkeen “gizarte onurako eremuak”?

19) Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak: definizioa eta onuradunak.

20) Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak: prestakuntzaren eta denboraren antolakuntza.

21) Berariazko Lanbide Heziketak barne hartzen dituen tituluak eta heziketa zikloak.



22) Definitu itzazu “lanbide kualifikazioa”, “lanbide gaitasuna” eta “gaitasun unitatea” kontzeptuak.



23). Zer hartzen du barne Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalak? Nola dago antolatuta?



24) Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren 5/2002 Estatuko Lege Organikoaren arabera, zein ziren Lanbide Heziketaren hiru azpi-sistemak? Enplegurako Prestakuntzarako IV. Hitzarmen Nazionala sinatzearen ondorioz izandako bilakaeran, zein bi azpi-sistema geratu ziren?

25) Zein da egiaztatu beharreko gutxieneko unitatea Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko?

26) Zer da INCUAL?

27) Zeinek osatzen dute Enplegurako Prestakuntzarako Hiruko Fundazioa?

28) Zer dira Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak? Norentzat dira? Zein da horien modulu-egitura?

29) Zer da LANBIDE? Zein da haren xede nagusia?

30) Zer da Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia edo Eusko Jaurlaritzaren Lan Merkatuaren Behatokia? Zein erakunderen menpe dago? Zein da haren helburu nagusia?